

AINGERU IRIGARAY JOAN ZAIGU

A. Irigaray joan zaigu eta hogetahamar urteren buruan EGAN-en zuzendaritzako eta kolaboratzaile zintzoa izan denaz ezta gauza erraza hitz egokiak asmatzea. Aldizkari honek hainbeste zor dion gizonari esker on soilez ordaintzerik ez baitia. Hala ere, lerro hauen bidez gizon euskaltzale eta langilearen adierazpenak agertzera behartuak gaude.

Irigaraytarrek instituzio bat izan dira nafar euskaltzaleen artean. Pablo Fermin Irigaray Goizueta zen lehena (1869-1949), Iruineko auriztar mediku ospetsua. Euskal idazleen artean Larreko izenordez ezagutzen zena. *Prosistas navarros* (1958) deritzan elebidun liburuan bilduak daude bere lanik garrantzitsuenak. *Buruxkak* liburuaren egile zen J. Etxeparerekin batean, Larreko, medikuntza gaiak euskaraz idatzi dituenetako guti horietakoa genuen. Beraz, Aingeruk, etxetik zuen maisu egokia, eta bere semeak ere bide hortatik hezitu zituen. Zoriturrez ez da beti gertatzen etxea euskararen eskola, euskaldunon famuliotan. Baina, Aingeruren kasoan bera izan da aitaren oinordeko, bai medikuntzan eta baita euskalaritzan ere. Bere lanak, euskaraz eta gazteleraz, liburuetan ez ezik aldizkarietan sakabaturik aurkituko ditugu. Eta, ez da tipia izan bere emaitza. Apat-Etxebarne izenordea maiz erabili zuen. Baita ere, inoiz, Irular izenpetuz ere argitaratu zituen. J. Bilbaoren *Eusko-Bibliographia*-n leku zabala hartzen dute bere lanak, IV. tomoaren 418-419 orrialdeak eta IX. tomoko 580-581.

Bidasoako Beran jaioa zen 1898ko martxoaren 1ean. Bere medikuntza ikasketak Barcelona, Paris eta Freiburg-en osatu

zituen. Euskarak, eta bereziki Nafarroako euskarak, oso kezkatua zen. Min hori barnean zeraman estudiante garaian ere. Justo Garate bergararra dugu horren lekuko eta euskaltzaletasunaren hasiera haietan ez zion guti zor, Justok dionez.

Ingurukoengan euskaltzaletasuna zabaltzen arduratu zena, gaztetxo hasia zen euskaraz edo euskarari buruzko lanetan, bere ogibidezkoa bete ondorean, urterik urte hil arte jarraitzeko. Adibidez, 1932an RIEVen argitaratu zuen Ezkabarten arkitutako udal agiria euskaraz (bereziki, Ezkabarteko Zildozen), 1773koa, zenbait oharrekin argitaraziz hasi zen. Handik laster ikusiko zuten argia Erronkariko Eguberri kantik *Anuario de Eusko Folklore*-n (1933). Baina ordurako hasia zuen bere bitizan zehar burutuko zuen lanik interesgarriena, Nafarroako euskararen geografia historian zehar. Lehen lana 1933an Nafarroako euskararen egoera aztertuz Euskararen Adiskideak elkarteko memorian, gero RIEVen jarraituz 1935ean.

Gerra aurreko garai hartan RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) eta *Anuario de Eusko-Folklore*-z gainera Donostiako *Yakintza*-n ere kolaboratu zuen. Gerraondoan ordea, euskal kulturaz argitaratu diren aldizkaririk gehienetan. *Gure Herria*, *Euskera* eta *Diario de Navarra*-n euskara hutsean anitz artikulatu; baina, bereziki *Egan*-en, bere sortzaile eta zuzendarietakoa zenez, 1953tik 1981era arte.

Oroit hiltzeaz, zuhur badazu, Irigaraitarren epitafioa Nafarroako hiriburuko hilerrian, eta han behar zuen pausatu gure Aingeruk ere. Aspaldi zen erri eta 1983ko azaroaren 28an Donostian aurkitu zuen herioak eta egun berean eroan zuten Iruinera.

Orotarik idatzi zuen bai euskaraz eta bai gazteleraz ere, iker lanez, bilketaz, sortuz, itzuliz eta zabalkundez. Arestian aipatutako aldizkarietaz aparte gogoangarriak dira *Principe de Viana*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Gure Herria*, *Bol. de la R. S. V. Amigos del País* eta beste zenbaitzutan eman zituen lanak. Eusko Ikaskuntzako kide zen gerraurretik eta gainera euskaltzaina.

Lan tipi sakabanatuak ugari utzi dizkigu. Horietako asko, euskaraz eta gazteleraz. Bera sorkide zen euskarazko *Principe*

de Viana orrian eta *Diario de Navarra*-n zabalkundez emanak bereziki. Baina gure barnera begira ere egin zuen antzerako lanik. Esate baterako, bera izan zen Gabriel Arestiren balioaz beste inor baino lehen ohartu zena eta *El Bidasoa* eta *Egan* aldizkarietan bene poesiagintzaren berri emanez. Bestalde, E. Zubiri «Manezaundi»-ren lanak ezagutarazi, lehenik aldizkarietan eta gero berak hain egoki paratu zuen *XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak* (1958) deritzan liburuan.

Aingeruren beste kezka bat zen haur eta gaztetxoentzako irakurra, euskarari nolabaiteko laguntza eskainiz. X. Garmendiaren laguntzaz preparatu zuen, J. M. Barandiaranen bildumetatik, *Cuentos Populares vascos - Euskalerriko ipuñak* (1957). Horrez gainera, baita ere bere kabuz euskaraz ikasten laguntzeko metodo antzerako liburu bat, *Jostatuz, mintzaira ikas* (1966). Eta F. Michel-en liburutik, antzerako asmoz, euskal kantak berezi zituen, frantsesetik gaztelarrera itzuliaz, bi liburutan argitara emateko; hala dira *Poesías populares de los vascos* (1962).

Bere euskaltzaletasuna, Satrustegik ongi erakutsi zigun: «Gerra aurreko giroa bizi izan zuen gizona zen... Herriaren aldeko euskaltzale bezala bere sinisteak eta jarrerak zituen eta ikuspegi horretatik juzgatu zituen arazoak...» (*Egin*, 1983-XI-30). Egia esan, *Gure Herria*-n (1959, urrikoa, 233-235 orr.) «Literatur-euskararen inguruan» idazkian bere aburuak era honetara agertu zituen: «Euskara izkiriatuaren batasuna, ezin da beraz erdietsi Euskaltzaindiaren agindu edo gramatika baten medioz, horiek denak ametsak direlaketz; baina izkiriatazaileek asko egin dezaketela nago, euskara idatziaren desberdintasunak ttipitzeko; gero eta geiago edatuz izkiributan erdiko-eskuara edo erdiko molde bezalako bat...».

Aburu horietan tinko zegoenari ez zen erraza besterik konpreniaraztea, handik bederatzi urtera, ikastolen abiadurak eta literaturgintzarenak idazkera bateratzeko bideak errazten zituela, idazle, andereño eta maisuak batasunaren normatiba eske zeudela irakaskintzaren testuek hala eskatzen zutelako. Gerorako etorriko ziren irratia eta gure egunotan sartzen da euskara telebistan. Euskara idatziaren batasunerako Arantzazutik (1968) markatu zen bideari esker erraztu zaizkio

Euskal Herrian orokortasunerako erabilera. Bestalde, esan beharra dago, Euskal Herria ez dela lehena, auto-bidez eta era askotako komunika bidez, toki guzietako euskaldunok elkarrengandik hurbilago edo harreman estuagoetan gaudenez, medioen bultzadaz eta harremanen maiztasunez. Eta, orientabide batzu markatu ezik, gure atzerapena askozaz handiagoa izango zen autonomia bidean jartzeaz.

Berak ordea, etxetikako euskara zuen maite. Hor lotzen zen gizona. Besteok ere etxetikakoa dugu maiteen, baina etxeetan aspalditik sartu zen irratia eta laster sartuko zen telebista. Eta, guk, horiek ezin egin etxe bakoitzaren edo herri euskalki bakoitzaren gisara. Naturaltasunak bere arriskuak izanarren ere guregan zetorren pisu guzi horri eutsiko bagenion, batasuneruntz jo beharra ikusten genuen. Berez ez zela erdiko biderik egingo eta bultzatu beharra zegoela. Hala ere, Aingeruk ez zuen horrela ikusten. Bere iritziak agertzen zizkigun baina gehienok ez gentozen ados.

Hori ordea, ezta batere harritzekoa, askoz geroago erabiliak dira era hortako zalantzak Eusko Jaurlaritzan bertan. Horrek ekarri zigun euskeragintzako atzerapena; baina azkenerako ez dago beste biderik batua hautatzea baizik. Plangintza eta metodologiak nahitaez eskatzen dituenak dira eta lehendik ere inor ez da ibili kapritxoz.

Hala ere, bakoitzaren ikuspegiak errespetagarri dira. Ekin-tza guzietako hautsi-mautsiak dira horiek, edozein ekintzak berez dakartzanak, eta diferentzia tipi horiek garrantzi guti dute gure herrigintzan edo kulturgintzan; horregatik, Aingeru-rena bezalako lanak, goresgarriak dira; batez ere bere eritziak garaiz adiarazi ba zituen.

Iker lanetan ordean, maizenik gazteleraz idatzi zuen. Schuchardt-en *Primitiae Linguae Vasconum* (1947) alemanetik itzulia argitaratu zuen, eta aldizkarietan sakabanaturik zituen bere zenbait lanetan oinarriturik prestatu zuen *Noticias y viejos textos de la «Lingua Navarrorum»* (1971).

Hizkuntzaren agiri zaharrak, Erdi-aroko izenak, eta antzerako gaiak kezkatzen zuten eta hortaz ere aurkimenak eta ikerketak egina zen.

Irigarayk literatur profanoa maite zuen, J. M. Barandiaran eta F. Michel-engandik jaso eta prestatu zituen lan haietan ere hori nabari da. Bere iritziz, eta arrazoi handiz gainera, euskal literaturan askok uste baino lan gehiago zen profano hortarik eta gehiago baliatu behar gindezke. Horrek ez zuen ukatzen Utergako Beriainen mezatarako liburuaren azterketa egitea, Enrike Zubiriren literatur lanak gogozko bazituen ere. Bide hortatik aritu zenez, zerbait burutu zuen. Gure artean behar haina zabaldu ez den lan bat bazuen, behar bada liburuxka bat osatzea merezi duena: «Esbozo crítico» edo «Esbozo bio-bibliográfico de Literatura éuskara profana» delakoa, XV. mendetik XX.era arte *Príncipe de Viana* aldizkariaren 98 eta 99 zenbakietan argitaratua. Lehenago ere zenbait gauza labor argitaratuak zituen hortaz eta hurte bete lehenago «Modismos del idioma vasco» aldizkari berean.

«Esbozo» horren sarreraz estilistika aldetik merezimenduak dituzten egileen aipamen berezia egiten du lehenik eta gaian sartzen da: hasteko Oinaz eta ganboar leinuen borroketakoak aipatuko ditu, Zuberoako pastoral edo xaribariak gero. Here-lle-k horien baliapenez eman zituen aburu eta berriak ere jasoko dizkigu, bereziki pastoralaren plastika alderdiko egitura agerraraziz eta gairik profanoenak hautatuz. Ihauteriak ere beren lekua dute xaribarieri loturik eta hain erraz aurkitzen ez diren literatur materialen berri ematen digu, muestren bidez.

Bernat Detxeparegandik zenbait zati hautatu transkribatzen ditu eta argitasunerako oharrak erantsi. Ondotik datoz beste zenbait autore: Oihenart, Joanes Etxeberri Sarakoa, Joan Antonio Mogel eta Iztueta. Geroagokoak, XIX. mendean idatzi zutenena, oso labor egiten ditu aipamen soil soilak: Pascual Iturriaga, Otsobi, Artxu, Ulibarri eta abar. Ondorean Azkue eta Barandiaranen bildumetakoan berri emanaz.

Baina, besteak beste, XVIII. mendeko Peñafiorida kondeaz eta P. Barrutiaren zenbait zatiz ahaztu zen nonbait. Baita ere Donostian joan zen mendearen azkenaldera piztu zen teatro mugimenduaz eta beren lanez. Horren ordez Bizkaiko herri antzerki soil bat aurkezten digu, Bonifazio Latxa-Agirrereren *Todos erribatekos* irri-antzerkia. Horrekin bukatuz.

Gabriel Arestiren poesia inork baino lehen goresteak baino ziurrago 1953tik *Egan* aldizkarian bere ardurapean atera zuen «Naas-maas» sailak erakusten digu bere literatur profanoaren alderako joera, aburuetan eta berriak ematean. Era berean, baita ere inolazko metodo edo erregela hertsiri loturarik gabe literatura libreki lantzean.

Min duenak hara mihia, esan ohi da. Eta, Irigaray, Nafarra izatez ezta batere harritzekoa bertako euskarak historian zehar ezagutu duen galeraz min hartzea. Nafarroako euskarak asko kezkatzen zuen.

Izan ere, Irigarayk, Nafarroaren euskalduntasun jatorra frogatu nahi zuen gure belaunaldiko nafar guzien aurrean, noizbait errege Naxerako Santxok izendatu zuen «Lingua Navarrorum» defendatu nahi zuen nafartarrak horren alde kontzientziatuz. Horregatik, gure mediku honek, inoiz loari eta urrengo ogibidezko laneri orduak kenduz, aski gazterik hasiko zuen Nafarroako erresuman euskararen diakronia aztertzen. Lehenik, 1933an, «Noticia histórica y estado actual del euskara en Navarra» titulatzan den lana aurkeztuko zuen Iruñeko *Memorial de la Sociedad Euskararen Adiskideak* gerragatik suntsituko zen aldizkarian. Hura, A. Irigarayren lanik hobere-netakoaren hasiera baizik ez zen. Era berean, «Documentos para la Geografía lingüística de Navarra», RIEV-en 1935ean.

Geroztik, Nafarroako euskarak, lekukotasun zehatzen bidez, bere egoera salatuz jarraituko zuen seme leiala izango zuen. Halakoak izango ziren *Euskera* aldizkariak bere abiadura berria hartzean, 1956. urtean, «Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935» eta lau urte geroago «Nuevos testimonios de la lengua vasconica en Navarra», *Príncipe de Viana* aldizkarian. Lan guziotan zerbait gehitzen zuen historian zehar nahiz egoeraren berri ematean.

Bilketa eta azterketa guziokin, 1974. urtean liburu bat ere argitaratu zuen, maiz erabiltzen zuen izenordepean, A. Apat-Echebarne, *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra* (Iruña, 1974). Lan horietan ohi zuenez, maparik ere ez da falta mendeak zehar zer nolako atzeratze eta galerak izan dituen adieraziz. Gainera, oraingoan, herriz-herrizko zerrenda eta aurkibidez aberastua eta bibliografia osatu bat ere bai.

Hala ere, ez dut esango Nafar euskararen historia guzia zehatz biltzen duenik. Alde batetik, lan beraren jarraipiderako adierazpenak ber berak ematen ditu, baina bestalde, zenbait hutsune somatzen ditugu. Adibidez, L. P. Peña Santiagorekin «Estudio etnográfico del Valle de Urraul Alto» (*Munibe*, 1966) burutu nuenean *Diario de Navarra*-n gorazarrezko artikulu bat eskaini zigun, bertako euskararen aipamena ere eginaz, baina gero bere liburura jasotzea ahaztu zitzaion. Dena dela, gure Urraulgaineko azterketa harek L. L. Bonaparte printzearen lanari zenbait ohar eta gehigarri egiteko aukera eman zidan eta «Sobre el euskera de Urraul Alto y el venerable P. Andoain» (*Euskera*, 1981) publikatu.

Lan berari jarraituz, oraindik dato osatuagoz beste lan bat burutzea zen bere gogo. Horregatik, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian jarraituko zuen lehengo agirien gehigarri: «Tafalla era vascofona», 1977an argitaratuz eta «El Hospital Civil de Navarra y el euskara en el siglo XVII», 1982an.

A. Irigarayentzat Nafarroa zen gure mina. Euskal Herriaren sustrai zen Nafarroa aurkitzen zuen eri. Medikua izakiz eta gizonen osasuna bezala begiraten zuen euskararena. Bereziki Nafarroan aspalditik ikusten zuen bere begi zoliak gaitz hori eta 1933an hasi zuen lana, bertako euskararen egoera aztertzen, aurrerantzen eten gabe jarraituko zuen bere bizitza guzian zehar eta etzuen jasoko etsipena baizik.

Baita ere, esan beharra dago, Nafarroara begira Euskadi hitzak ere izutzen zuela. Xabier Kintana eta Alfonso Irigoyenen eskariz, 1979ko urtarrilaren 26an Euskaltzandiak Baionan egin zuen batzarrean, Euskal Herri hitza ez baztertearen eskarizko erabakia hartu zuen eta A. Irigarayentzat hori ere ez zen aski, bere gogoz, Diputazio eta udaletxe guzietara zabaldu behar zen Euskal Herria erabiltzeko eskaria. Antzerako jarrera egertu zuen Eusko Ikaskuntzako bileretan ere. Irigaray beti zegoen hortaz, eta erabaki hura birresteko eskariak behin baino gehiagotan egin zituen. Bere ustez, oso kaltegarria zen Euskadi, nahiz Euskadi, erabiltzea, baina batez ere Nafarroako erresuman. Bera ohartzen ez zena, nonbait, politikoei aski zoro erabiltzen dituztela bai historia eta bai termino tratamendua eta horien baitan beti izan direla aldakorrak.

EGAN euskara hutsean hasi zen 1953. urtean. «Asmo berri» atarikoaren izenpetzaile genuen beste bi zuzendaritzakoekin batean: A. Arrue eta L. Mitxelena. Hurrengo urtean (1954) eman zion hasiera «Naas-maas» deitu sailari. Ildo berriz sartu zen eta 1977ra arte iraunarazi.

Baina hori ez zen EGAN-en egin zuen lan bakarra. Bestelako literatura saiorik ere burutu zuen. «Esbozo» haren sustraiak ere, euskara hutsean gainera, *Egan*-en orrialdeak zehar aurkituko ditugu. Umore aldetik Latxa-Agirrereren *Todos erribatekoz* laket bazitzaion ere, teknika, zientzia eta sorketazko literatur lanak era maite zituen. Hara nola aritu zen saio batean *Erle gobernatzalleen gidari* liburuaz, Jean Etchepare eta Huarteko Joanen medikuntzazko idaz lanez eta abar. Beste zenbait hitzaldi eta saio argitaratu zituen gure literaturako autoreak goretsiz edo aztertuz: Axular, Mogel, Iparraguirre, Lizarraga Elkanokoa, eta abar. Era berean, ez zen ahaztuko d'Abbadie bezalako eragileekin ere. Une bakoitzean bere eritziak zintzo agertuz.

Hainbeste lan egin zuen gizonari oso ongi jarri zioten bere semeek, heriotza iragartzean, Etxahun Iruriren esaldia: «... ez bazintüdan hain maite üken oi ama Üskal-Herria».

Bai; maitasunaren eraginez, gogo kementsua nabari.

Juan SAN MARTIN